

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000002504

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_ERA_0215

Xedea

Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeko diru-laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkureak, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Oinarria espezifikoak onartzea erabagi zan. Oinarri espezifiko horreen artean, Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeko dirulaguntzenak onartu ziran.

Bigarrena: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Hirugarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Laugarrena: Horren ondorioz, 2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkureak, zenbait Oinarri espezifiko aldatzea onartu eban eta, euren artean, Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeko diru-laguntzenak.

Argudioak

Lehenengoa: Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Diru-laguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina 2019ko ekainaren 21eko 2019/1.479 Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zan, baina gaiak daukan premiatasuna kontutan edukita, egindako delagazinoa abokatu beharra dago alkateak zuzenean erroteko

**Sinadurea eta data**

Erabagia

Goian adierazitako kontuan hartuta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeko diru-laguntzen deialdia onartu eta zabaltzeko Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatuta ahalmena abokatzea alkateak zuzenean erroteko.

BIGARRENA: Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeko diru-laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea, eta beharrezkoak diren eranskinak onartzea.

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basera bideratzeko agindua emotea Ekonomia sailari.

LAUGARRENA: Bermeoko Udalaren web gunean deialdi honen publizitatea txertatzeko agindua emotea ATB sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean erabagiaren barri emotea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40005281F00E0Z4R4D5P4Z7

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 28/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/10/2020
14:19:30

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0215

Fecha: 28/10/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



1.1.1. BERMEOREN IZENAREN ZABALKUNDEAN ETA HERRIKO EKONOMIAN ERAGIN POSITIBOA DAUKIEN JARDUERA ARRUNTETIK HARATAGOKO JOLAS-IZAERAKO KIROL EKIMENAK ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

ESPARRUA: KIROLA

IN-E 180/01-15

UDAL SAILA:	Alkatetza
INSTRUKTOREA:	Kirol Patronatuko zuzendaria
BALORAZIO BATZORDEA	Kirol Patronatuko diru-laguntzen balorazio Batzordea eta Kirol Patronatuko zuzendaria <i>*Dirulaguntza honen ebazpena tokiko gobernu batzarrak emongo badau ere, instrukzio fasea eta proposamena UKPak kudeatuko ditu.</i>
DIRULAGUNTZA EBATZIKO DAUAN ORGANOA:	Tokiko Gobernu Batzarra
EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA:	Ebazteko eta jakinarazteko HILABETEKO epea egongo da, deialdi bakoitzean eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
DIRULAGUNTZAREN LERROA:	Bermeoren izenaren zabalkundearen eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak finantzatzeko diru-laguntza programa.
KODEA:	
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO KOPURUA:	DIRU PARTIDA 00800-91211-4810304 2020an 17.000 € Datozen urteetan, urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera
HELBURUAK:	<ul style="list-style-type: none"> Herri osorako jarduera arruntetik haratago antolatzen diran jolas-izaerako kirol jarduerak bereziki eta/edo noizean behingo jardueren antolaketa sustatzea, laguntza ezberdina edota gehigarria eskatzen dabenak. Herriaren izenaren zabalkundearen eragina daukien kirol-ekimenak sustatzea.
EPEAK:	<ul style="list-style-type: none"> Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetan hasiko da. Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita HILABETEKO epean



	luzatuko da. <ul style="list-style-type: none"> • Justifikazioak: Eskaria egiten danetik HIRUHILEKO epean izango da.
BALORAZIO IRIZPIDEAK:	1.- Kirol ekintzaren iraupena . <ul style="list-style-type: none"> • Egun baten egingo dana (goizez edo arratsalde, ordu batzuk): 2 puntu. • 2 egunetan (adib: zapatu eta domeka) egingo dana edota 2 saio egun berean (adib: zapatu goiz eta arratsalde): 5 puntu • 2 egun baino gehiagoko iraupena izango dauan ekintza: 10 puntu 2.- Ikusleen partetik dauan arrakasta . <p>a) Kirol ekintza honek aurreko edizioan izan dauan arrakasta jendearen aldetik, hau da, herriko edota kanpoko jendea ekintza ikustera hurbildu dan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oso jende gutxi joaten da ikusten (1-100 bitartean): 0 puntu • Jende gutxi joaten da ikusten (100-200 lagun bitartean): 5 puntu. • Jende kopuru dezente joaten da (201-300 bitartean): 10 puntu. • Sekulako arrakasta dauka, jende asko hurbiltzen da (301 lagunetik gora): 25 puntu. 3.- Parte-hartzeari jagokonez, honako hau baloratuko dogu: <p>b) Partaide kopurua.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kirolari gutxik parte hartzen dabe (10-100 bitartean): 10 puntu. ▪ Kirolari dezentek parte hartzen dabe (101-200 bitartean): 15 puntu. ▪ Kirolari askok parte hartzen dabe (201etik gora): 25 puntu. 4.- Aurkezten daben aurrekontua . Antolatzaileek kirol ekintza aurrera erodateko ekonomikoki egin daben lanaren balorazioa. Enpresa edota komertzioetara jo daben diru laguntza bila... <ul style="list-style-type: none"> ▪ Finantziazio maila. Udala edota bere erakunde autonomoz aparte beste diru sarrerarik lortzeaz arduratu dira (sponsorrak, enpresa pribatuak, ...). <ul style="list-style-type: none"> • Bat ere ez: 0 puntu. • Diru sarreren %1etik %50ra euren kontura: 2 puntu • %50tik gora: 5 puntu. <p>* Inskripzioak kanpo geratzen dira, ez ditugu kontuan hartzen.</p> <p>OHARRAK: Ez dira hartuko kontuan esku dirutan emondako sariak eta diru sarreren barruan, inskripzioen dirua.</p> 5.- Kirol ekintzak komunikabideetan zuzeneko eragina daukan Bermeoren izenaren zabalkundea eginez. <ul style="list-style-type: none"> • Ez dauka apenas eraginik: 0 puntu



	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikabide lokaletan dauka eragina: 10 puntu • EAE mailako komunikabideetan dauka eragina: 25 puntu • Nazio edota nazioarteko komunikabideetan dauka eragina: 35 puntu
HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Diruz lagunduko diran elkartean eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak, ahal dan kasu guztietan, euskaraz bideratuko dira. • Diruz lagunduko diran ekimenen edo ekintzen ondorioz egingo diran idatzi, ohar, kartel eta gainerakoak, gutxienez, euskaraz egingo dira beti euskarari lehentasuna emonez. • Publizitatea, bai ahozkoa, zein idatzizkoa, gutxienez, euskaraz egingo da beti lehentasuna euskarari emonez. • Diruz lagundutako kirol eta kultura elkarteek antolatuko dabean eskola, tailer, entrenamendu, saio eta abarrak euskaraz izango dira, eta arreta berezia jarriko jake ume eta gazteei zuzendutakoak. Kasuren batean, monitorearen gaitasun ezagatik ezinezkoa balitz euskaraz bideratzea, gutxienezko komunikazioa euskaraz izatea bermatuko da (agurrak, esaldi solteak...). • Diruz lagundutako kirol eta kultura elkarteek euren jarduna bideratzeko monitorerik kontratatu behar badabe, kontratatzeke baldintzen artean monitore jarduna euskaraz normaltasun osoz bideratzeko hizkuntza gaitasuna daben giza baliabideak kontratatzea hobetsiko dabe. Euskaraz jarduteko gaitasun nahikoa daben giza baliabideak bilatzeko lan aktiboa egingo da. • Elkarteek euren jardura arruntak bideratzeko (eskolak, tailerrak, entrenamenduak, saioak, ikastaroak...), erabiltzaileei edo herritarrei zuzenduta egingo dabean ekintza guztietan, posible dan heinean, bermatuko da euskararen presentzia bai ahoz, zein idatziz (batzarrak, ate irekiak saioak, ekitaldiak...). Egunerokotasunean erabiltzaileei informazioa helarazteko edo herritarrei zuzenduta erabiltzen dabean informazio kanaletan ere euskara erabiliko da posible dan kasu guztietan (watsapp taldeak, posta elektronikoak, sare sozialak...). • Diruz lagunduko diren ekintzetan euskal musika jarriko da, bai jardura orokorretan (eskolak, entrenamenduak...), zein berezietan (lehiaketetan, jaietan...) edota jaietan, zein merkataritza eta/edo ostalaritza dinamizatzeke ekintzetan, eta euskal kulturarekin, eta euskal identitate eta izaerarekin lotutako ekimenak bideratzeko ahalegina egingo da. • Euskararen kalitatea bermatu beharko da aipatutako ahozko eta idatzizko ekintza guztietan. Horretarako, ekintzaren sustatzaileak beharrezko ikusiko baleu(be), ekintzak publikizatzeke jendaurrean jarriko diran euskarriak Euskera Sailera bideratu ahalko dira honek hizkuntza kalitatea bermatzeko helburuarekin, gainbegiratze eta laguntza lana egin daian. • Taldeek izan daikiezan zalantzak argitzeko, eta, jendaurreke ekintza idatzietan kalitatea bermatzeko, udaleko Euskera Sailari laguntza eskatzea gomendatzen da. • Gomendatzen da baita ere, Bikain Kalitate ziurtagiria edo Bai Euskarri ziurtagiria lortzeko pausuak emoten hastera dirulaguntzaren onuraduna.



	<p>Oharra: Publizitate edo zabalpen lana egiteko, euskara ez eze, beste hizkuntzaren bat erabili behar danean, euskarari lehenetasun osoa emongo jako.</p> <p>*Hizkuntza irizpideak azaltzeko, "elkarte" terminoa erabili da, baina irizpide honeek dirulaguntzen onuradun guztiek bete beharrekoak dira, dirulaguntza hartuko daben pertsona fisiko eta juridiko pribatu guztiek betetzekoak, hain zuzen ere.</p>								
ESKATZAILEAK:	ESPEZIFIKAZIOAK: Pertsona fisikoak eta jarduera ekonomikoak garatzen edota garatzen ez daben pertsona juridikoak								
DIRUZ LAGUNDUKO DIRAN KONTZEPTUAK:	<p>Arlo honetan diru-laguntzak jaso daiekizan kontzeptuak dira: formazioa, baliabide materialen alokairua eta asistentzia sanitarioa, giza baliabideak, aholkularitza bulegoak, ekimenerako aseguru berezia, sariak, federazioaren kuotak, beharrezkoak diran kudeaketa gastuak, garraioak ohiko kirol jarduerekin zerikusirik EZ dauanak, eta ohiko jarduerenak EZ DIRAN gastuak, hau da, ohiko aurrekontuan EZ dagozan gastuak. Oro har, jarduera berezi moduan identifikatuta dagozanak.</p> <p>Ez dira finantzatuko ondorengo gastuak: Luxuzko gastuak, kirolariei ordainketak, banku- interesak, administrazio-zigorak, merkatuko balioa baino altuagoa diran gastuak...</p>								
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	<p><u>Aurkeztu beharreko dokumentuak:</u> Eskara eta justifikazioa egiteko eranskinak deialdiarekin argitaratuko dira.</p> <p><u>Akatsak zuzentzeko epea</u> Diru-laguntza eskarian ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun izango ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontaktzen hasita. Denbora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.</p> <p><u>Diru-laguntzak emoteko prozedura</u> Diru-laguntza emoteko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Diru-laguntza lortutako puntuaketa eta proiektuaren aurrekontuaren araberakoa izango da. • Aurrekontuko dotazio osoa ez da egongo zetan banatu. Aurkeztutako proposamenei gutxienez, 50 puntu lortu beharko dabez diru-laguntzaren bat jasotzeko. • Gehienez honako kopuru honeek jaso ahal izango dira proiektu bakoitzeko: <table border="1" data-bbox="684 1718 1187 1850"> <thead> <tr> <th>PUNTUAK</th> <th>FINANTZIAZINOA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>81-100</td> <td>%90</td> </tr> <tr> <td>66-80</td> <td>%50</td> </tr> <tr> <td>50-65</td> <td>%10</td> </tr> </tbody> </table>	PUNTUAK	FINANTZIAZINOA	81-100	%90	66-80	%50	50-65	%10
PUNTUAK	FINANTZIAZINOA								
81-100	%90								
66-80	%50								
50-65	%10								



<p>AURREIKUSITAKO KOSTUAK PROGRAMA HONETAN</p>	<p>Gehienezko kopuruak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gure nortasunagaz loturiko ekimenak, gehienez 11.000€ • Gainontzeko ekimenak, gehienez 6.000€ <p>Puntuazioaren arabera esleitu beharreko dirulaguntza guztien kopurua dirulaguntza programa honetarako aurreikusitakoa baino handiagoa denean, diruaren banaketa proportzioan egingo da.</p> <p>Dirulaguntza hau bateragarria da beste dirulaguntza batzuekin.</p> <p><u>Diru-laguntzak ordaintzea</u> Alkatetzak ordainduko dau diru-laguntzaren %100a programa osoa egin eta gero, eta jagokon justifikazioa jaso ostean. Diru-laguntza ondo justifikatzeko, balantzean (kitapenean) agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturekin justifikatu behar da. Desadostasunik balego, Kirol Patronatuko Diru-laguntza balorazio batzordeak aztertuko leuke.</p> <p><u>Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Jasotzaileak bere ohiko kirol jarduera zabaltzeko egiten dauan publizitatean (iragarkiak, ekipajeak, kartelak, webgunea,...) eta ekimenagaz lotuta sortzen diran euskarri guztietan Bermeoko Udaleko logoa agertu beharko da. • Ezingo dau zorrik euki Bermeoko Udalarekin zein Kirol Patronatuarekin, ezta Ogasuna eta Gizarte Segurantzarekin ere. <p><u>Diru-laguntzaren justifikazioa</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Diru-laguntzearen onuradunak proiektuaren justifikazioa deialdian agertzen diran eranskinen arabera egin beharko dau, egoitza elektronikoan edo Berhaz bulegoan. Horretarako kirol jarduera egiten danetik HIRUHILEKO epean izango da. <p><u>Akatsak zuzentzeko epea</u> Justifikazioan ez baditu eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita.</p>
<p>JARRAIPEN EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK:</p>	<p>2020. urterako 17.000 € Datozen urteetan, urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera</p> <p>- Komunikabideetan ekintzaren eta herriaren presentzia handia bermatzen daben ekintzak antolatu izana.</p>
<p>ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:</p>	<p>- Eskiera eta justifikazioa egiteko eranskinak deialdiarekin argitaratuko dira.</p>



GENERO ERAGINA	BAT ERE EZ
1/1982 LOaren arabera argitagarria ez dan emakida BAI/EZ	<i>Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa.</i> EZ

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40005281F00E0Z4R4D5P4Z7

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 28/10/2020
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/10/2020
 14:19:30

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0215

Fecha: 28/10/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

